



Ibilbidea

Bizkaia **bizkiletaz**



9. Ibilbidea

Lekeitio > Aulesti



Fitxa teknikoa

- Lekeitio-Amoroto-Gizaburuaga-Aulesti
- Bizikleta Plan Nagusiko Lea-Artibai ardatza
- Ibilbidea: 14 km
- Gutxi gorabeherako denbora, geldialdiekin: bi ordu
- Zailtasuna: ertaina
- Zirkulazioa: ez dago, errepideko 2 km-tan izan ezik
- Gomendatutako **bizikleta mota**: hibridoa edo mendikoa

Bizkaia bizkiletaz

Azken urteotan, Bizkaian hainbat urrats egin ditugu Bizikleta sustatzeko eta garraibide gisa erabiltzeko bidean. Ibilbide hauek aukera paregabea dira autoa etxean uzteko eta bizkiletaz lasai eta presarik gabe gozatzeko. Ibilbide segurua eta pertsona guztientzat egokiak dira.

Bizkiletaz ibiltzea dibertigarria, osasungarria eta ekologikoa da. Noizean behin kirol egiteko baina askoz gehiagorako balio du. Ikastetxera edo lantokira joateko erabil dezakezu, erosketak egiteko, lagunekin gelditzeko edo, besterik gabe, zure hirian edo herrian paseatzeko edo txangoak egiteko. Bizkiletak **ABANTAILA** ugari ditu:

- **Osasungarria** da, sasoi onean egoteko ezin egokiagoa, eta estresaren eta agresibitatearen kontrako antidoto bikaina.
- Garraibiderik **merkeena** da.
- Independentzia handia ematen digu eta hirian **azkarra da**. 7,5 km-tik beherako distantzietan autoak baino lasterragoa da.
- Baina, batez ere, beharrezkoa da, planetaren hondamena geldiarazteko **beharrezkoa**. Nazio Batuen txosten baten arabera, 50 urtean planetako temperatura 1,4 eta 5,8 °C bitartean igoko da, atmosferara isuritako gasen ondorioz. Horrek mutur-muturreko klimak ekarriko ditu, uholdeak, tornadoak, gaur egungo aberastasun biologikoaren %25aren galera... Baina, zer gerta daitekeen pentsatzen hasi baino, hobe dugu arazoa konpontzen saiatu. Egia esan, dena ez dago gure esku, baina zure ekarpena funtsezkoa da planeta salbatzeko. Erabili bizikleta eta utzi autoa!!!

Bizkiletaz ibiltzea, berez, ez da arriskutsua. Autoek sortzen dute arriskua. Hona hemen, bada, autoetatik babesteko **AHOLKU** batzuk:

- Abiatu baino lehen bidea aztertu eta ibilbiderik arriskutsuenak baztertu.
- Kale edo bide estuetatik bazoaz eta autoek zu aurreratzean 1,5 metroko segurtasun-tartea uzteko lekurik ez badago, bidearen erditik joan. Ez ibili aparkatuta dauden ibilgailuetatik hurbil.
- Bizikleta egoera onean eduki beti. Aldiro aztertu balaztak, gurpil-azalak, direkzioa eta argiak.
- Gauez, argiak eta islagailuak erabili. Ez jantzi arropa ilunik.
- Zirkulazio-kodea errespetatu. Ezkerretara edo eskuinetara biratu behar baduzu, alde aurretik adierazi maniobra. Kaskoa nahitaezkoa da herriz kanpoko bideetan; dena dela, ez da beharrezkoa aldapa gora luzeetan eta bero handi-handia egiten duenean.
- Zure erreian eskuinetara jotzeko aukera badago, kontuz ibili. Askotan, arrisku-egoerak sortzen dira.
- Biribilguneetan beste ibilgailu guztiek bezalaxe jokatu eta, lehen irteera hartu behar ez baduzu, erdiko erreietatik jarraitu.
- Ez erabili musika-entzungailurik.

Hamalau kilometro inguruko ibilbide honek Lea ibaiaren arroko bi herri nagusiak lotzen ditu: Lekeitio eta Aulesti. Lehen bi kilometroak errepidetik egingo ditugu, eta gainerakoak oinezkoentzako eta txirrindularientzako pista batetik, Lea ibaiaren ertzetik. Hainbat geldialdi egingo ditugu, bertako biztanleen historia idatzi den lekuetan. Ibilbideak zailtasun orografiko handirik ez duen arren, malda labur baina gogor batzuk igo beharko ditugu eta bidearen zati batzuk estu samarrak dira. Norberaren trebetasunaren arabera, baliteke zati horietan bizikletatik jaitsi behar izatea.



Ibilbidea

Nola heldu

Gure bizikletarekin Lekeitiora joateko erabil dezakegun garraio publiko bakarra Bizkaibus da. Autobusean bizikleta garraiatzeko, zorro batean bilduta eraman behar dugu (plastikozko poltsa handi bat erabil dezakegu). Bilbo Lekeitiorekin lotzen duten hiru linea daude, eta hainbat geraleku dituzte (Galdakao, Zornotza, Mallabia, Abadiño, Markina, Gernika, Ea...).

0 km: Lekeitio

Arrantzale-herri honetako alde zaharra Bizkaiko ederrenetako bat da. Bideari ekin aurretik, osteratxo bat egin behar dugu harriz zolatutako kale estuetan barrena. Aspaldiko garai batean herria suteetatik babesteko eraiki zen harresiaren hondarrak aurkituko ditugu hor-hemen. Gero, portura jaitsiko gara, non kaio hankahoriak hegan ibiltzen diren arrain bila eta ubarrioiek hegoak lehortzen dituzten eguzkitan hedatuta. Azkenik, hondartzan ibilalditxo bat egin, San Nikolas uhartea hurbiletik ikusi, eta Andra Mariaren Zeruratze eliza ederra bisitatuko dugu. Orain dela milaka urte, Historiaurreko gure arbasoek leku hau aukeratu zuten bizitzeko, bere aberastasunagatik eta, agian, inguru guztia ezin ederragoa delako. Beraz, merezi du une batez gure eguneroko zereginak albo batera uztea eta denbora-tartetxo bat hartzea leku hau bisitatzeko eta bertako edertasunaz gozatzeko.

Lekeitio bazterrik bazter bisitatu ondoren, bizikletara igo eta Markinarantz abiatuko gara, BI-2405 errepidetik. Ezkerraldean Andra Maria Magdalenaren basiliza aurkituko dugu, eta apur bat aurrerago Lea ibaia. Gure gidaria eta bidelaguna izango da ibilbidearen amaieraraino. Bi kilometro egin baino lehen, ibaiaren gaineko zubi batera helduko gara. Gurutzatu, eta hartxintzarrezko pista bat aurkituko dugu. Lea ibaiaren ertzetik doan ibilbide baten zati bat da. Pista horretatik joango gara Aulestiraino. Ibilbide horretan oinezkoek dute lehentasuna eta, behar izanez gero, bizikletatik jaitsiko gara trabarik ez egiteko.

Ibaia bizkor isurtzen da itsasorantz, eta gu haren ertzetik joango gara denbora guztian, pedalei lasai eraginez. Gure ezkerraldean ospitale zaharra ikusiko dugu. Hormetan nabaria da denboraren eragina, baina harro altxatzen da oraindik, garai bateko handitasuna galdu nahi ez balu bezala. Kilometro bat aurrerago hurrengo geralekua dugu: Oleta (Amoroto).

3 km: Amoroto

Ibaiaren beste aldera igaroko gara. Antzinako errege-bide batetik goaz. Felipe III.a hortik pasatu zen XVII. mendean, lartzako burdinolaren zerbitzuak kontratatzea etorri zenean. Ordurako, Amorotok independentzia lortu zuen, Lekeitioko Basilikatik bananduta, eta horrekin batera zama astun bat kendu zuen gainetik: lortutako



hamarrenaren heren bat Lekeitiori eman beharra. 1519. urtea zen. Garai hartan, noble-jatorriko familiek zeukaten agintea, eta herritarrei ordainarazten zizkieten zergekin aberasten ziren. Ibaia horren lekuko isila izan zen, Kristo aurretik lurralde horretan kokatu ziren biztanleak ere ezagutu baitzituen.

Berriro ere ibaia zeharkatu, eta eskuinaldeko ertzean gora egiten duen bide asfaltatu bat hartuko dugu. Kilometro bat egin aurretik, baserri bat aurkituko dugu harrizko zubi baten ondoan. Zubia gurutzatu, eta hartxintzarrezko pista itzuliko gara.

5,5 km: Gizaburuaga

Berehalaxe, Gizaburuagan sartuko gara. Izen bitxia du herriak, “bururik gabeko gizonak” esan nahi baitu. Antzina, Ibaibaso zeritzon, baina X. mendean gudu odoltsu bat gertatu zen bertan. Ibaiko ura frantsesek hildako bizkaitarren odolaz gorritu zen, eta orduan aldatu zen herriaren izena. Pistak errepideari itsatsitako espaloi batera eramango gaitu. Metro batzuk aurrerago, berriro hartuko dugu pista. Leku horretan XVIII. mendeko okindegi-errotak dago. Elektrizitaterik gabeko garai hartan, uraren indarraz baliatzen ziren alea ehotzeko eta ogia egiteko, beti ere ibaia begirune handiz zainduz.

Bidea uraren ertzetik doa. Eguen auzora iritsi baino lehen, berriro zeharkatuko dugu ibaia. Berehala, Santa Katalina eliza ikusiko dugu, bere talaiatik zelatari. Apur bat aurrerago, bidexka bide asfaltatu batean amaitzen da. Ezkerretara jo, eta hartxintzarrezko pista ezaguna aurkituko dugu berriro. Bengoleako multzo historikorantz joango gara.

Hurbildu ahala, argi entzungo dugu indar hidraulikoa baliatzeko eraikitako presa txikitik erortzean urak egiten duen hots nahastezina. XIV. mendean, burdinola bat egon zen bertan. Presaren beste aldean, urak gelditu egiten du itsaso urdin zabalerantz bere isurtze bizkorra eta sakontasunak ematen dion kolore berde turkesa hartzen du. Badirudi iraganeko garai loriatsuak gogoratu nahi dituela. Izan ere, zenbaitek diotenez, XVIII. mendearen erdialdean burdinola hori oso garrantzitsuena izan zen, munduko garrantzitsuena omen! Garai hartan borrokak eta guduak oso ugariak zirenez, premiazkoa izan zen dorre bat eraikitzea leku estrategiko hori defendatzeko. Metro batzuk aurrerago Bengolea dorretxea altxatzen da, zaharturik eta mendeen zamak nekaturik. Dorretzeko almenek beren betazal astunekin aztertzen dute gure ibilaldia.

9 km: Aulesti

Helmugatik bost kilometrora, Aulesti herrira iritsiko gara. Gure bidea ibaiaren eskuinaldeko ertzetik doa. Inguru horretako paisaia landazabala da nagusi. Larre eta baratzeen artean, erraz ikusiko dugu zapelatz mesfidatia, gure lurraldeko harrapariarik ugarienetakoa bat, zutoin edo hesolaren baten gainean erne, mugimendu guztiak zelatatzen. Ur-zozoa ikusten zailagoa da. Ibaian goiko ibilguan bizi da, sakontasun gutxiko uretan. Urpean ornogabe bila igeri egiteko gai da. Gure bizikletan hortik pasatzean zaratarik ateratzen ez badugu, non edo non ikus dezakegu, ibaiko harri baten gainean geldirik edo airean hegan, zuzen eta hegotei bizkor eraginez. Erraz ezagutuko dugu, lumaje beltzean daukan paparreko zuriagatik. Askoz ere zailagoa da bisoi europarra ikustea. Lortzen baduzue, zinez zorte onekoak zaretela pentsa dezakezue. Zalantzarik gabe, bisoi europarra gure ugaztunik mehatxatuena da, batez ere larrugintza-industriak bisoi amerikarra ekarri duelako eta beraren habitata suntsitzen ari delako.





Bada, sinesgaitza dirudien arren, Lea ibai xumea mundu osoan galzorian dagoen mustelido iheskor horren bizilekua da. Denbora gutxi eman behar dugu leku paregabe horretan, isilka igaro behar dugu, eta bertan izan ez bagina bezala desagertu, ikusten ez duguna errespetatu... gure ondotik etorriko direnenganako maitasunagatik besterik ez bada ere.

Hamaikagarren kilometroan, bidexka bide asfaltatu batera heltzen da. Berriro ere lehengo pista hartu, eta ezkerretara joko dugu. Hor-hemen landatutako intsini pinuen artean joango gara. Zuhaitz-granja batean gaudela irudituko zaigu. Jatorriz Ameriketako Estatu Batuetakoak diren pinu horiek bizkor hazten dira eta diru-etekin handiak ematen dituzte, horrexegatik landatu dituzte Bizkaian. Angizko garai bateko bizitegi- eta industria-gunearen ondotik igaroko gara, eta aurrerago, ibaian gora, Antziorko zubiaren aldamenetik. Zubi xumea da, baina ezin hobeto darama denboraren joana. Zubi hau zeharkatu gabe alde batera utzi eta ibilbideari jarraituko diogu.

Beste bide asfaltatu bat aurkituko dugu. Hortik joango gara, beherantz. Aurrerago, pista hartuko dugu berriro, ibaiaren ertzean, errota zahar baten alboan. Aulesti herritik hurbil gaude, baina gaztainondo-baso txiki batetik igaro behar dugu oraindik. Gaztainondoa gure hostozabal autoktonoetako bat da. Hainbat mendetan zehar, gizakia zur noblezko zuhaitz horrekin batera bizi izan da, eta janari urriko garaietan gaztaina bizigai nagusietako bat zen. Gaur egun, gaztainondo gutxi dago gure lurraldean, baina geratzen diren baso apurrak bizitza oparoko lekuak dira. Aulestin azkeneko aldiz gurutzatuko dugu ibai. Gure bidaia hemen bukatzen da, baina ibilbideak beste zortzi kilometro egiten ditu ibaian gora, zati batzuk oraindik egin gabe dauden arren.



Inolako zalantzarik gabe, **Lea ibaia** da ibilbide honetako protagonista nagusia. Antzina-antzinatik, bera izan da eskualdeko bizitzaren oinarria, elikagai-iturria eta energia-sortzailea, Historiaurretik gizakiak bertan kokatzeko arrazo nagusia. Garai batean, ibaiko urak errota eta burdinoletako makinak mugiarazten zituen, eta ibai ertzeko zuhaitzak etxeak, itsasontziak eta lanabesak egiteko erabiltzen ziren, baita armak fabrikatzeko ere. Gaur egun, gizakiak ez du ibaiaren premia, eta ez du lehen bezala zaintzen, baina, hala eta guztiz ere, ibaiak ura, freskotasuna eta bere marmar jakintsua oparitzen dizkigu oraindik. Laburra den arren, Lea jatorri oneko ibaia da. Bizkaiko zazpi deiadar-mendietako batean jaiotzen da, Oiz-en. Mendi horietatik, Gernikako Batzarretarako deia egiten zen edo arriskuen berri ematen zitzaien Jaurreriko biztanleei. Jaiotzen den lekutik itsasoraino 20 kilometroko bidea besterik ez du egiten, baina inguruko mendietatik jaisten diren errekatxo ugarien ura jasotzen du. Ibaiaren ertzean baso autoktonoak daude, urriak baina balio handikoak. Nagusiki, hariztiak eta baso mistoak hazten dira. Ibaiko uretan, ikusezin, janari bila ibiltzen da animalia ospetsu bat, ibaiko altxorrik baliotsuena: bisoi europarra.

Bisoi europarra ugaztun eder eta liraina da, tamaina ertainekoa (buztana kontuan izanik 55 cm luze izan daiteke). Gaur egun babestuta dago, baina garai batean jazarpen gogorra jasan zuen gizakiaren aldetik, bere larruagatik. Hanka laburrak eta oin erdi-palmatuak ditu, eta horri esker zalutasun handiz egiten du igeri. Ilea gaztaintara argia da, baina orban zuri bat dauka kokotsean eta goiko ezpainean. Tamainarekin batera, morfologikoki orban zuri horrek bereizten du beraren etsai nagusia den bisoi amerikarrarengandik. Izan ere,



azken horrek kokotsean soilik du ile zuria. Amerikarra indartsuagoa denez, apurka-apurka lekua kendu dio europarrari. Gainera, bere habitata hondatzen ari denez, gaur egun bisoi europarra Europako ugaztunik mehatxatuena da, katamotz iberiarraren ondotik. Gure lurraldeko ibai batzuk espezie horren azken gordelekuak dira. Gure esku dago egoera onean iraunaraztea.

Aspaldi ez dela, ugaztun eder hori ugaria zen gure ibaietan. Ziur asko, haraneko biztanleek sarritan ikusiko zuten, goizaldean ibaiaren ertzeko bidetik **Lekeitiora** jaisten zirenean. Han, herriko kale estuak zeharkatuko zituzten, jauregi aristokratikoen eta

Andra Mariaren Zeruritze eliza ederraren ondotik igaroz (XV. mendeko tenplu gotikoa da). Portura iritsita, hantxe ikusiko zuten San Nikolas edo Garraitz uhartea, Lea ibaiaren bokalearen ondoan eta Isuntza eta Karraspio hondartzen aurrean.

Hortik abiatzen ziren haritzen zuraz egindako itsasontziak Europarantz, pikak -infanteriak erabiltzen zituen lantza luzeak- eramanez. Piken punta zorrotzak ibaian gorago egiten ziren, Gizaburuagatik hurbil. Han, **Bengoleako errota-burdinola** eta eskualdeko beste burdinola batzuetan, ibaiaren indarrak mugiarazitako mazo handiek atsedenek jabe jotzen zuten burdin gorria ingudearen gainean, arteek ematen zuten landare-ikatzaz elikatutako labeen beroturik. XVIII. mendeko lehen erdia zen. Lurraren aberastasunari eta hainbatetan jaunaren zartailuaren pean egindako lanari esker, Bizkaia burdinazko produktuen hornitzaile garrantzitsua zen kontinente osoarentzat. Ikatza eta itsasontzigintzarako zura ematen zituzten baso haietan lizarrak hazten ziren. Elkarrengandik oso hurbil landatzen zituzten, argia jasotzeko lehian zuzen eta garai haz zitezten. Lizarretatik pikak egiteko hagak ateratzen ziren. Agian, Flandesko pika ospetsua, nekaezintasunaren eta jarraikitasunaren sinboloa den hori, Lea ibaian behera jaitsi eta Bizkaiko portu horretan itsasoratu zen gaur egungo Belgikara joateko. Batek daki!

Garai hartan, zubiak funtsezkoak ziren salgaiak nahiz pertsonak ibaiaren alde batetik bestera igarotzeko. Oso baliabide urriekin eraikitako ingeniari-tza-lan paregabeak dira. Tamalez, garai hartako zubi gutxi geratzen dira. Kronikek diotenez, 1627an uholde batek zubi haietako batzuk bota zituen, haien artean **Antziorko zubia**. Saltzaile ibiltariak eta bertako biztanleek ibai zeharkatu ahal izateko behar-beharrezkoa zenez, berehala eta bizkor berreraiki zuten, xehetasunez garrantzirik eman gabe, landu gabeko harriak erabiliz eta morterorik gabe. Begi bakarra du, eta harlanduzko arku. Soslaia bizkar itxurakoa da. Ez dauka eskudelik ez karelik. Arina da, ia etereoa, baina lurrean sendo finkatuta dago eta ondo jasan du denboraren joana.



Bazenekien...?

Ibaiertzeko basoa ur-emari iraunkorreko erreka edo errekatxoaren ondoan hazten den landare-komunitatea da. Inguruko landareditik argi eta garbi bereiz daitekeen korridore bat eratzen du. Galeria-basoa ere esaten zaio, landarediak tunel moduko bat eratuz estaltzen duelako ibai. Giza jardueren eraginez, baso mota hori asko eraldatu da, baina Lea ibaian ondo kontserbatutako zatiak daude. Zuhaitz ugariena haltza da, baina landareen nahiz animalien komunitatea oso oparoa da. Gure lurraldean biodibertsitate handiena duten lekuetako bat da.



Informazio interesgarria

Lekeitio

☎ Udala: 94-603.41.00
☎ Turismo-bulegoa: 94-684.40.17
Web: www.lekeitio.com

Amoroto

☎ Udala: 94-684.25.49
Web: www.amoroto.net

Gizaburuaga

☎ Udala: 94-684.29.82

Aulesti

☎ Udala: 94-627.91.17
Web: www.aulesti.net



Larraldiak 112

Bizkaiko Foru Aldundia

Herri Lan Saila
Tel.: 94-406.70.00
www.bizkaia.net/herri_lanak/Bizikletak/eu_index.html



ELKARTEAK

- **Biziz Bizi.** Hiri Txirrindularien elkarteak
Tel.: 667.462.123
www.bizizbizi.org
- **ConBici.** Bizikletaren aldeko koordinakundea
www.conbici.org
- **Bizkaiko Txirrindularitza Federazioa**
Tel.: 94-441.50.49
www.febici.com
- **Euskadi Txirrindularitza Iraskundea (Gela pedagogikoa)**
Tel.: 94-454.51.27
www.fundacioneuskadi.com



BIZIKLETAREKIN BIDAIATZEKO GARRAIO PUBLIKOAK

- **BizkaiBus** (maletategia daukaten autobusetan bakarrik, eta zorro batean sartuta)
Tel.: 902-222.265
www.bizkaia.net
- **Renferen aldiriko trenak**
Tel.: 902-240.202
www.renfe.es/cercanias
- **Bizkaiko Garraio Partzuergoa**
Tel.: 94-476.61.50
www.contrabi.com
- **Erandio-Barakaldo txalupa**
Tel.: 94-467.00.35
- **Portugalete-Areeta txalupa**
Tel.: 94-496.47.03
- **EuskoTren, EuskoTran eta Larrainetako funikularra**
Tel.: 902-543.210
www.euskotren.es
- **FEVE**
Tel.: 94-425.06.15
www.feve.es
- **Artxandako funikularra**
Tel.: 94-445.49.66
www.bilbao.net/funicularArtxanda/jsp/home.jsp
- **Metro Bilbao**
Tel.: 94-425.40.25
www.metrobilbao.net
- **Bizkaiko Zubia**
Tel.: 94-480.10.12
www.puente-colgante.com

Lekeitio



Ospitale zaharra

Km 3

Amoroto



Oleta auzoa

BI-3447

Km 5,5

Lea Ibaia

Eguen auzoa



Gizaburuaga



Santa Katalina eliza



Bengoleako burdinola



Bengolea dorretxea

Km 9

BI-3447

Angizko bizitegi- eta industria-gunea

Antziorko zubia

Aulesti



Bizkaiko golkoa

San Nikolas uhartea

Isuntza

Andra Mariaren Zeruratze eliza

Karraspio

